

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Hornitzaileak, hoteletako-kontaktuak eta ekintzen informazioa eskaintzen diguten pertsona multzoa izango da. Guk eskaintzen ditugun zerbitzu desberdinak ondo funtziona dezaten beharrezkoak izango diren baliabideak lortuko ditugu beraien laguntzaz. Bazkideak, hasiera batean, gu izango gara (taldekideak) aurrerago bazkide gehiago beharko ditugu gure aplikazioa bideratzeko orduan, inbertsio minimo bat egin beharko dugulako.

Gure enpresan hornitzaileak ez dira ezinbestekoak, azken finean, guk zerbitzu bat eskainiko dugulako eta ez produktu bat. Hala ere, herrialde desberdinetan oinarritutako informazio desberdina lortzeko kontaktu desberdinak beharko ditugu. Horiek gabe, egoera hau asko zailduko zuen, proiektuaren garapena ekidituz.

Ondorioz, gure enpresak hainbat eragile izango ditu. Alde batetik bezeroak, gure zerbitzuak kontrolatuko dituztenak, eta bestetik, gu enpresa jabe bezala zerbitzu horiek aurrera eramanez eta azkenik aurrerago beharko ditugun bazkideak aplikazioa gauzatzeko.